

Hiesak jota hildakoak aurten orain hiru urte baino bost aldiz gutxiago izatea espero da

1996an 413 lagun hil ziren eta aurten 80 heriotz inguru izango direla iragarri da

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Heriotz kopuruaren «beherakada nabarmena» ohartarazi du Gabriel Inclan Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak Hiesaren Aurkako Nazio-

arteko Eguneko prentsaurrekoan. Izan ere, 1996an 413 lagun hil baziren, aurten 80 heriotz inguru gertatuko direla aurreikusi dute, hots, duela hiru urte baino bost aldiz gutxiago. Horrek esan nahi du

1999an Euskal Autonomi Erkidegoan dauden seropositiboetako %1 soilik hilgo direla. Kontseilariaren arabera, erabilitako tratamenduen eraginkortasunak ahalbideratu du heriotz tasa murriztu izana.

GABRIEL INCLAN sailburuak EAEko egoerari buruzko datu berriak eskaini zituen eta heriotzetan ezezik, aurten somatutako kasu berri kopuruan ere beherakada gertatu dela azaldu zuen: 1995eko 507 kasuetatik aurtengo 200 ingurura.

Bestalde, seropositibo guztietako 5.000 inguru ospitaleetako zerbitzuen sorospena hartzen ari direla adierazi zuen eta horietako 3.000tik behera tratamendu antirretobiralean daudela zehaztu. Horrek esan nahi du tratamendu mota horretan diren kopuruak %60,8 gora egin duela 1997tik hona.

Gainera, horrekin batera bi bider handitu da botika gastua antirretobiralak finan-

tzatzeko: gaur egun 3.000 milioi bideratzen dira (120 milioi pezeta). «Ondorioz, gaixoen bizitzak a l i t a t e a hobetzen ari da. Izan ere, duela hiru urte larri ziren gaixoak gaur egun lanaren, etxearen edo seme-alaben bila ari dira», azaldu zuen Inclanek.

Era berean, gazteen sexu ohiturei buruzko azalpenak eman zituen. Inclanek adierazi zuen harreman sexualak izaten dituztenetako %77k preserbatiboa erabiltzen dutela beti edo ia beti.

Inclanen arabera, azken lau urteotan hiesari buruzko azterketan positibo eman dutenen arteko lau kasu dira 15 eta 20 urte bitartekoak. Halaber, EAEn hiesa duten pertsona guztietako erdia kasik 20 eta 29 urte bitartekoak dira.

Osasun sailburuak prebentzioaren aldeko mezua nagusitzeko eskatu zuen, «behin-betiko txertoa ez dagoen bitartean, aurre hartzea behar-beharrezkoa da».



XOUSE SIMAL

Prebentzioaren alde lanean jarraitu behar dela esan zuen atzo Inclanek. Argazkian iazko Hiesaren Nazioarteko Egunean gaitz horren gaineko informazioa emateko mahai bateko bi lagun Bilbon.

1,2 milioi kondoi 1995. urteaz goertzik

Gazteek beraiek prebentzioari buruzko kanpainekin bat datozela ohartarazi zuen Inclanek ekimen mota hauen beharra arrazoitzean: «Gazteetako %91k ontzat hartu

dute kanpaina hauetan aritzea». Manuel Fernandez de Troconiz botikariaren elkargoko buruak ere 1995. urtean hasitako ekimenaren arrakasta azaldu zuen, berrehun pezetatan saldutako hiru kondoneko poltsa txikiak erruz saldu baitituzte.

Gabriel Inclanen ustez, bistan da, nazioarteko erakundeek argudiatu bezalaxe, prebentzio kanpainak ez dakartela sexu harreman kopurua zertan igo, «baina bai ordea harremanak izateko beharrezko den erantzukizuna».

Gurasoen «jarrera aktiboa» eskatu dute

■ INKESTA egin dute 17 eta 18 urte bitarteko neska-mutillengazteek euren gurasoekin izaten duten harreman nahiz komunikazioa aztertzeko sexualitate eta hiesa direla eta. Inaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aurkeztu zituen azterketaren ondorio nagusiak eta «ezinbestekotzat» hartu zuen «gurasoek jarrera aktiboa

hartzea euren seme-alabekin hobeto komunikatu ahal izateko». Ildo horretan, Oliveriren ustez, gurasoak seme-alabengana gehiago hurbildu ahala, gazteek dituzten kezkek lasaiago planteatuko dizkiete. «eta horrela gurasoek errazago igorri ahal izango dizkiegu prebentzioari buruzko mezuak». Izan ere, kontseilariak nabarmendu zuen inkestak age-

rian laga duela sexuak «gai tabu» izaten jarraitzen duela, nahiz eta gazteetako tasa handi batek harreman beste era batera izan dadila nahi dutela aitortu. Datuak oso argiak dira: neska-mutilek sexualitate edo hiesarekin zerikusiduen zerbaiti buruz hitz egin behar izatean %29k lagun bategana joko luke, %23k amarengana, %15ek bikotearengana eta %8k aita-

rengana. Baina aldi berean elkarrizketatu gehienek diote lehen-lehenik aita-amarengana jotzea nahiko luketela: %47k diote sexualitateari buruzko informatzaile nagusiak gurasoek izan behar dutela. Bestalde, gazteetako gehiengo zabal batek (%96) uste du te hiesa gaur egungo gizarteak duen arazo garrantzitsua dela eta %52k kontu hurbila dela diote.

EAEko organo emaleen portzentaiak puntakoa izaten jarraitzen du

■ Bihotzaren Astea burutuko du ATCOREk bihartik abenduaren 4ra

Aitor Elduaen / Donostia

ATCORE Euskadiko bihotzeko transplantatuen elkarteak bihartik aurrera egin bide duten Bihotzaren Astea dela eta zabalduko datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoko organo emaleen kopurua milioi pertsonako mundu mailan handiena da.

Iazko datuek agertzen dutenez, EAEn milioi pertsonako 43 emale egon zen. Alderatzuz, Espainian milioi pertsonako 31'5 organo emate egon ziren; Frantzia 16'8; Europan batzbestekoa 20koa izan zen, eta, Estatu Batuetan 21ekoa. Horrela, iaz, EAEn 142 giltzurrun transplante egin ziren, gibelenak 53, bihotzenak 22 eta birikenak 3; guztira 220 organu transplante.

Bihotz transplanteei dagokienez, aurten urtea amaitzerako 27 pertsona izango dira bihotz berriak jasoko dituztenak. Kopuru horren aldean, transplantatzeko emandako bihotz egokiak 34 ziren, beraz, bertako beharrak asetzeaz gain, EAetik kanpo ere eman daiteke.

EAEko bihotz gaixotasunak dituzten pertsonen Santandergo Valdecilla ospitalean egiten zaizkie transplante gehienak, izan ere, EAEn ez dago bihotz transplanterako programarik.

Bihotzaren astea

ATCOREk bihar Donostian goizeko 11:00etan Andia kaleko Kutxa Aretoan, eta, hilaren 4ean Bilbon, jardunaldiak antolatu ditu. Leku bietan Hemodinamika Terapeutikoaz Martinez de Ubago doktorea ariko da, Bihotz Zirugiaren garapenez Goiti Unibaso doktorea, eta, Bihotz Errehabilitazioaz Ferro Mugika doktorea.

Donazioaren publizitatearegiteaz gain, bihotz erreabilitazioa eta gaixotasunaren araberako aktibitate fisikoari buruzko informazioa transplantatu nahiz gaixoei erraztea da jardunaldion helburua.